



Arartekoaren ebazpena, 2012ko maiatzaren 21ekoa. Horren bidez, Ertzaintzak Kukutza gaztetxea barne hartzen zuen higiezina hustu eta eraisterakoan aurrera eramandako esku-hartzeari lotutako hainbat espedienteetako jarduera amaitzen da, baita ondorengo protesta ekintzetakoa ere.

Aurrekariak

1. 2011ko irailaren 21ean, Arartekoak ofiziozko espediente bat izapidetzea erabaki zuen Errekaldeko (Bilbo) Kukutza gaztetxea barne hartzen zuen higiezina usteko agindu judiziala betearazte aldera Ertzaintzak egun hartako goizean bideratu zuen jarduera nola gauzatu zen (inguruabar zehatzak) jakiteko.

Gure esku-hartzea eskatuz jasotako telefono dei ugariren ondotik abiarazi genuen gure jarduera, hizketakide horien ustez operatiboa osatzen zuten agenteetako batzuen jarduera neurritz kanpoko baitzen.

Hori horrela, erakundeko bi ordezkari lekura bertaratu ziren informazioa biltzeko. Operatiboko buruak eraikinerara sartzen lagundu zien, dagoeneko hustuta zegoena, eta nola hustu zen azaldu zien eta higiezinera sartzeko izan zituzten zailtasunen berri eman zien. Horrez gain, atxilotutako pertsonak ikusi ahal izan zituzten, une horretan polizia-bulegoetara eramateko zain eraikinaren barruan zeudenak.

2. Ofiziozko espedientearen izapidea hasi ondoren, esku-hartze horren gaineko hainbat kexa jaso genituen, baita hilaren 21eko arratsaldean eta hilaren 22an, 23an eta hurrengoetan polizia-kidego horrek aurrera eramandako jarduera batzuk neurritz kanpokotzat jotzen zituzten beste batzuk ere, bai Errekalde auzoan, bai Bilboko erdigunean, aipatu higiezina husteari eta ondorengo eraispenari eta gertakari horien ziozko protesta adierazpenei zegokienez.

Horregatik, hasiera batean Herrizaingo Sailari helarazi genion informazio-eskaera zabaldu genuen, jarduera berri horiek barne hartzeko.

3. Kexez gain, lesioen 76 parte eta hainbat argazki igorri ziren, zauriak eta kontusioak agerian jartzen zituztenak eta 29 pertsonen zegozkienak. Esan zigutenaren arabera, poliziaren esku-hartzeak eragin zituen batzuk zein besteak. Parte eta argazki gehienak kexak aurkeztu zituzten pertsonenak ziren.

Bestalde, Arartekoarekin biltzeko eskatu zuten auzotar batzuek ahozko testigantzak eman zizkiguten, baita bideo-grabazioak ere. Hainbat erreklamatzailerak ere bideo-grabazio batzuk helarazi zizkiguten.

Kexetan aipatu zen, oro har, poliziaren jarduera neurrigabea izan zela esku hartu zuen talde kopuruari zegokionez eta zirkulazio librea eragozteko



Errekalden ezarri zituzten mugaketei zegokienez. Izan ere, adierazitakoari jarraiki, horien ondorioz hainbat auzotar, auzoko langile eta ikasle, ezin izan ziren euren etxeetara, lantokietara eta ikastetxeetara heldu eta beste batzuek bertan geratu behar izan zuten poliziaren kargak harrapatzearen beldur zirelako.

Era berean, zenbait kasu zehatzetan neurritz kanpokotzat jo zen agenteen jarduteko modua, batez ere, indarkeriaren erabilerari eta establezimendu publiko zein pribatuetan sartzeari zegokionez, hala nola, tabernak, etxebizitzetako atariak, bai eta osasun zentroetan ere.

Halaber, zenbait kexetan agenteen eskutik jasandako irainak eta isekak salatu zituzten.

Kexek alderdi asko zituzten komunean, beraz, azkenean multzo batean izapidetzea erabaki genuen.

4. Kexa gehien eragin zituen polizia-jardueraren alderdietako bat indarraren erabilerari lotutakoa izan zen. Horren harira, protesta-eserialdi eta -manifestazioetan, baita horietatik kanpo ere, bideratutako neurritz kanpoko erabilera kasuak salatu ziren.

Lehenengo eta behin, guri adierazitakoarekin bat etorriz, Errekalde auzoan bertan 21ean gertatutako poliziaren kargak nabarmendu ziren. Karga horiek Ciudadela eta Goya kaleen elkargunean egindako eserialdi baten, egun horretan egindako prentsaurrekoaren eta arratsaldeko manifestazioaren – dirudienez, baimenduta zegoena- aurka egin ziren. Kexetan adierazi zen manifestazioa amaieran indarkeriaz bukatu zela, kontuan hartuta bat egin zutela plazan egin behar zen kontzertura lasai-lasai gerturatu ziren manifestazioko parte-hartzaileen uneak eta manifestazioaren amaieraren kontra atzetik egindako poliziaren kargak. Proporzionaltasunik ezari buruzko gaitzespenak 23ko arratsaldean udalaren ondoan egin omen zen eserialdia ere barne hartu zuen.

Era berean, pertsona zehatzen aurkako indarkeriaren erabilera neurrigabearen adierazle diren kasuak helarazi ziren, kontzentrazioak alde batera utzita, dagoeneko adierazi dugun moduan. Hala, adibidez, kexetako batek zioen atxilotu bat –baieztatu zenaren arabera, une oro jarrera baketsua izan zuena, eskuak goian mantendu eta geldirik egon zena, baita atxilotu ostean ere-jipoitu egin zutela bilurtuta eta geldiarazita zegoen bitartean. Beste batek kontatu zuen zenbait polizia-agente Moncada kaleko 8. zenbakiko atarian sartu zirela higiezinako auzotar baten atzetik zebiltzala. Auzotarra etxera zihoan lana amaitu ostean eta borraz bularrean jo zuten inolako justifikaziorik gabe. Beste batean salatu zen polizia-agenteak Gordoniz kaleko 46. atarian bortizki sartu zirela, ateko kristala apurtuz. Multzo berean Zubeltz ikastetxeko ikasle baten kexa zegoen. Ikasleak ziurtatu zuen ikastetxera sartzeko eskailerak igotzera zihoala eta polizia-agente bat gainera etorri zitzaiola, bularraldetik hartu zuela



eta eskaileretatik behera bota zuela, ostean, zenbait kolpe eman zizkieten eta azkenean atxilotu egin zuten. Errekalden lan egiten duen emakume batek azaldu zigun polizia-agenteez ez ziotela lantokian sartzen utzi, iletik hartu zutela, lurretik altxatu zutela lepotik helduta eta airean kalearen beste aldera eraman zutela. Kexetako batzuek 22an Kale Nagusian, baketsua izan zen manifestazio bat amaitu zenean, gertatutako ustezko gehiegikeriak zituzten hizpide. Horietako batzuek salatu zuten zenbait polizia-agentek gazte bat bortizki eta justifikaziorik gabe jipoitu zutela Abandoko metro-geltokian eta beste bat (azken hori atxilotu egin zuten) BBVAren eraikinaren ondoan dagoen autobusaren geralekuan. Horrez gain, El Corte Ingleseko eraikinaren aurrean, eskuak goian zituztela eta erantzun mota hori justifikatzen zuen ezer egin barik, geldirik zeuden gazte batzuei zenbait borra-kolpe eman zizkietela ere salatu zuten. Kexa horien artean, gainera, 21ean lagun batekin batera Ametzola tren geltokitik gertu zebilen gazte baten kexa dago. Horren arabera, ostikada bat eman zioten sabelean eta eskukada bat garondoa polizia-agente batek lagunari bultza egin ostean protesta egin zuelako. Bere ustez, ez zen inolako justifikaziorik egon. 23an Venezuela plazan eta Goya eta Gordoniz kaleek bat egiten duten gunean oinezkoen aurka gomazko pilotak jaurti izana salatzen zuten kexak ere aintzat hartu ziren, bai eta Errekaldeko Tobogan tabernan zeuden pertsonen aurkako eraso fisikoak salatzen zituztenak ere. Polizia-agenteez establezimendu horretan indarkeria erabilia sartu ziren.

Kexetan azpimarratu zen atxiloketa batzuk oso bortitzak izan zirela eta ez zegoela inolako arrazoirik erabilitako indarkeria justifikatzeko.

Kexa gehienetan nabarmendu zen eserialdian eta manifestazioetan ez zela egon operazioan parte hartu zuten polizia-agenteez erabilitako indarkeria justifika zezakeen inolako jardura bortizik bildutako jendearen eskutik. Dirudenez, esku hartu zuten polizia-agenteez Talde Mugikorreko Unitatekoak ziren. Era berean, azpimarratu zen ekintza horietako askotan, bildutako pertsonen eskuak goian zituztela eta jarrera baketsuan zeudela eta ez zegoela alde aurretiko abisurik egon manifestazioak eta kontzentrazioak desegin zituztenean, ezta indarkeria erabili zutenean ere. Halaber, gailendu zen poliziaren kargen ondorioz, pertsona asko lurrera jausi zirela, bata bestearen gainean eta harrapatuta geratu zirela, orduan, polizia-agenteez egoera baliatu eta babesgabetasun une horretan bortizki jipoitu zituztela, altxatzea eta hortik ihes egitea saihestuz. Zenbait edukiontzia eta espaloien barandaren artean egindako karga baten kasua nabarmendu zen, bidali ziguten bideo-grabazio batean ikus zitekeena.

Kexa askotan zuzenean pertsonen aurka eta oso distantzia motzean jaurtitako gomazko pilotei erreferentzia egin zitzaion eta bazirudien helarazi zizkiguten bideo-grabazioek hori baieztatzen zutela. Zenbait kasutan bereizketarik egin gabe jaurti zituztela adierazi zen eta batzuk ikastetxe publiko baten eta zenbait etxebizitzan leihotara iritsi zirela aditzera eman zuten, bai eta haurrentzako jolasen eremu baten ondoan jaurti zirela ere.





Bestalde, kexetan ulertu zen jarduteko modu horrek eragindakoen manifestatzeko eskubidea eta adierazteko askatasuna urratu zituela.

5. Halaber, zenbait kexak Tobogan tabernan burututako poliziaren jarduerak zituzten hizpide. Horren harira, bortizki sartzeari eta lehen aipatu dugun indarkeriaren erabilerari lotutako kontuak mahaigaineratzeaz gain, beste batzuk ere jorratu zituzten.

Zehazki, tabernan zeuden zenbait pertsona –euren lekukotasunen arabera, lokalean babesa hartu zuten Ertzaintza lehen aldiz sartu baino lehen, kalean gauzatzen ari ziren poliziaren kargetatik gordetzeko- kexatu ziren polizia-agenteeek haietako batzuk lurrera botatzera behartu zituztelako eta, jarrera horretan, ustez modu arbitrarioan azkenean atxilotu zituztenak aukeratu zituztelako.

6. Kasu batzuetan zenbait pertsonen atxiloketa edo egozte penala, polizia-agenteeek haiei edo euren lagunei emandako tratua ondoz egindako protestarekin lotu zen. Jarduteko modu hori gehiegikeriatzat jo zen eta arrazoi horren ondorioz atxiloketa edo egoztea pairatu zutenentzako zigorra zekarren.

Modu berean, adierazi zen hainbat kasutan polizia-agenteeek egoztea puztu egin zutela eta delituztat jo zutela, erreklamatzailen ustez, faltatzen ere jo ezin zitekeena, bai eta jazo ez ziren zenbait gertakari ere egotzi zituztela.

7. Kexetako batean aipatu zen Bilboko Udaleko zinegotzi bati ez zitzaiola utzi polizia-lerroa zeharkatzen, ezta utzaraztea gauzatu bitartean eraikinean sartzen ere. Halaber, zinegotzi horri eta beste batzuei emandako tratua aurpegiratu zitzaieen agenteei, desagokitzat jotzen zena udal ordezkari diren aldetik. Tratu horren adierazle gisa azpimarratu zen polizia-agente batek une oro borrarekin ukitzen zuela zinegotzi hori harekin hitz egiten zuen bitartean, udal bereko zinegotzi batek zenbait bultzada jaso zituela eta bere udal taldeko zenbait kidek irainak pairatu behar izan zituztela.

Helarazi ziguten bideo-grabazioetako batean aipatutako zinegotziak jasan zituen bultzadak agerian jarri ziren.

8. Beste pertsona batzuk kexu ziren poliziaren operazioan parte hartu zuten polizia-agenteeek ez zeramatelako aurpegia bistan eta ez zutelako identifikatzeko aukera ematen zuen zenbakirik edo erreferentziarik; izan ere, haien ustez, inguruabar horietan ia ezinezkoa zen jarduera okerren ondorioz balizko erantzukizunak argitzea. Hainbat pertsona kexatu ziren polizia-agenteeek ez zitelako identifikazio-zenbakia eman eskatu zitetenean.

9. Herrizaingo Sailak poliziaren esku-hartzea nola gauzatu zen azaltzen zuten inguruabar zehatzen berri emateko hasiera batean helarazi genizkion bi eskaerei erantzuna eman zien eta titularrak, 2011ko urriaren 6an, Eusko Legebiltzarreko Erakunde, Herrizaingo eta Justizia Batzordearen aurrean egin



zuen agerraldian emandako informazio berea bidali zigun, Ertzaintzaren jarduera azaltze aldera. Zehazki, zinegotziaren agerraldiko testua eta agerraldia babesteko ekitaldi horretan hark eskatuta proiektatu ziren bideo-grabazioak igorri zizkigun.

Agerraldiko testua hasi zen gogora ekarriz okupatutako higiezina egoitza-erabilera gisa birkalifikatutako aspaldiko industria-pabiloi bat zela eta, birkalifikazio hori egin zenetik, eraikinaren jabeek etxebizitzak eraikitzeo eraispen-lizentzia eskatu zutela. Ildo horretan, adierazi zen eraikina hartu zutenek ez zutela aipatu eraikina utzi nahi eta jabeek auzibidera jo zutela eta bertan okupazioa ilegaltzat jo zela. Ertzaintzaren esku-hartzea testuinguru horretan kokatu zen, esanez pasa den irailaren 14an Bilboko Instrukzioko 6. zk.ko Epaitegiak aipatu polizia-kidegoari ofizioa bidali ziola *"higiezina huts zedin eta eraikina eraisteko lanetan beharrezko 'laguntza eta babes' neurriak har zitzaten agintzeko"*. Hauxe gehitu zen: *"Epailearen agindu hori jaso ondoren, Ertzaintzako polizia-arduradunek dispositibo bat prestatu zuten agente-kopuru esanguratsuekin"* eta: *"baliabide-kopuru esanguratsu horrek, hain zuzen, operatiboa ahalik eta denbora gutxien gauzatzea zuen xede, eraikina utz zezaten agindu zitzaizen pertsonen eta dispositiboan parte hartu zuten agenteen segurtasuna ahalik eta gehien bermatzeko"*.

9.A.-Eraikina husteko irailaren 21eko goizean egindako esku-hartzearidagokionez, hauxe aipatu zen:

"A pesar del gran número de agentes y medios desplegados, el operativo fue largo y complicado, porque los ocupantes del edificio se encastillaron en el mismo. Y cuando digo que se encastillaron, lo digo literalmente, porque intentaron impedir el desalojo del edificio como si se tratara de un castillo, utilizando pértigas y lanzando objetos, permítanme la comparación, desde las "almenas".

Grupos de violentos se encerraron de tal forma en el interior, soldando y bloqueando puertas, que no habrían podido abandonar el edificio por sus propios medios si así lo hubieran deseado.

Los encastillados lanzaron piedras, pintura, sacos de cemento desde la azotea del edificio y desde puntos cercanos contra los agentes de la Ertzaintza. Estas actuaciones violentas por parte de okupas y de personas que les apoyaban en la calle provocaron cuantiosos daños en coches particulares, vehículos oficiales, mobiliario urbano y otros enseres. Y obligaron a la Ertzaintza a realizar en calles cercanas al edificio tres cargas policiales.

Quiero aclararles que el operativo de desalojo del edificio se había planificado para que, salvo que fuera imprescindible, no se utilizaran pelotas de goma en su interior. Y así fue, salvo en una ocasión en la que los agentes no tuvieron otra opción.

Aunque algunos portavoces de Kukutza habían anunciado una resistencia pasiva, en el momento del desalojo sólo las personas que se encontraban en



las plantas baja y primera del edificio mostraron una actitud pacífica. Por esta razón, no fueron detenidos.

Sin embargo, las personas que se encontraban en los pisos superiores y en la azotea del edificio mostraron un comportamiento muy violento, por lo que fueron detenidos y trasladados a comisaría.

Quiero recordar que el operativo comenzó poco antes de las 5 de la mañana y fue apoyado por la Policía Municipal de Bilbao, a la que traslado también mi agradecimiento. En cuanto detectaron la presencia de la Ertzaintza, los encerrados en el edificio hicieron sonar una sirena de incendios y lanzaron varios cohetes pirotécnicos al aire con el objetivo de avisar de la presencia de la Ertzaintza para intentar evitar que nuestra Policía cumpliera la orden judicial.

Teniendo en cuenta que el edificio estaba cerrado a cal y canto, y que desde la azotea y desde el interior les arrojaban numerosos objetos y polvo de extintores, los agentes se vieron obligados a acceder a su interior con la ayuda de un vehículo blindado.

Cuando por fin consiguieron entrar se encontraron con todo tipo de obstáculos, que se hicieron más difíciles de franquear a medida que los agentes ascendían a las plantas superiores. Se encontraron con puntales cruzados en las escaleras, sacos de cemento, puertas soldadas, hormigón, alambradas; de forma que tuvieron que utilizar mazas, cortachapas y otras herramientas para abrirse paso.

El avance se retrasó porque no fue posible utilizar sopletes dado que en torno a algunas puertas había material inflamable colocado a propósito por los ocupantes del edificio, con el consiguiente riesgo no sólo para los agentes, sino para los propios ocupas.

La Ertzaintza realizó 23 detenciones dentro del edificio y siete (7) en los alrededores. Todos fueron puestos en libertad en las horas siguientes, una vez que fueron identificados y se instruyeron los atestados oportunos.

Entre los detenidos, hay personas acusadas de usurpación de bien inmueble, atentado contra los agentes de la autoridad, desobediencia grave y desórdenes públicos.

En el inmueble se encontró de todo. Por supuesto, material para actividades culturales y recreativas, pero también un circuito cerrado de cámaras que permitía visualizar los pasos que iba dando la Ertzaintza además de otros materiales que no tenían nada que ver con la cultura”.

9.B.- Hilaren 21ean (arratsaldean) egindako jardueri zegokienez, aldiz, hauxe adierazi zen:

“La Ertzaintza tuvo que intervenir para impedir que se sobrepasara el cordón policial dispuesto para evitar una nueva ocupación y actuar para evitar las barricadas que se colocaron en distintas partes de Rekalde.





Los incidentes comenzaron en el transcurso de una manifestación que había sido convocada horas antes. La Ertzaintza se vio obligada a intervenir cuando las patrullas de la Policía Municipal que acompañaban a los manifestantes fueron atacadas y también cuando los ertzainas que vigilaban los accesos al edificio para evitar que volviera a ser ocupado son atacados con lanzamiento de piedras, botellas y otros objetos. Fruto de estos incidentes se produjeron dos detenciones más”.

9.C.- Eta hurrengo egunei zegokienez, honakoa:

“El día 22, se celebró por la mañana una manifestación en Bilbao. A su conclusión, la Ertzaintza detuvo a una persona imputada que cortaba el tráfico, por atentado a un agente. Esa misma noche, ya en la madrugada del día 23, tres contenedores resultaron quemados, afectando a dos vehículos, la fachada de un edificio en el que se derritió una persiana y un rótulo comercial, y la fachada del colegio Tomás Camacho.

La mañana del 23 se celebró otra manifestación sin incidentes y, ya por la tarde, a partir de las 17.03 horas se registraron los disturbios más graves, que comenzaron en Rekalde y se extendieron a otras zonas de Bilbao como el Casco Viejo o Santutxu, prolongándose durante horas.

En estos incidentes, los alborotadores volcaron 800 contenedores tanto en Rekalde como en otras 46 calles de Bilbao. 58 de esos contenedores quedaron inservibles y otros 50 resultaron dañados. Los grupos de violentos quemaron 5 vehículos, pretendieron asaltar el Ayuntamiento y atacaron los batzokis de Rekalde y el Casco Viejo.

La madrugada del domingo una persona resultó herida de gravedad cuando trataba de evitar la quema de un vehículo. Los Bomberos tuvieron que realizar 39 salidas. El Ayuntamiento de Bilbao ha valorado los daños en el mobiliario urbano en 150.000 euros.

El día 23, cuando los altercados alcanzaron la mayor gravedad, los detenidos fueron 25. Las imputaciones son, en su mayoría, por alteración grave del orden público, aunque también hay otras por atentado, amenazas, daños en bienes de uso público o desobediencia.

En total, la Ertzaintza ha detenido a 64 personas entre los días 21 y 25 de septiembre”.

9.D.- Ertzaintzako Errekaldeko anbulatorioan eta tabernetan sartzeari zegokionez, honako hau aipatu zen:

“Es radicalmente falso, insisto, radicalmente falso que la Ertzaintza haya entrado en el ambulatorio de Rekalde a robar partes de lesiones. Lo que ocurrió fue, simple y llanamente, que un grupo de personas entró en el ambulatorio y un agente entró tras ellos para identificar a alguno de los alborotadores y ante la indicación de los responsables del centro de que no se podía acceder armado al mismo, el agente se marchó. Y quiero también decir que no existe



constancia de ninguna queja por parte del personal del mencionado centro de salud sobre la actuación de la Ertzaintza.

También quiero aclarar las informaciones que algunos han intentado manipular sobre la entrada de la Ertzaintza a bares de la zona de Rekalde. Puedo señalarle que, según la información de que disponemos, agentes de la Ertzaintza accedieron a cuatro establecimientos, en todos los casos para proceder a la detención de personas identificadas como integrantes de los grupos que habían cruzado contenedores y arrojado objetos a los recursos policiales.

En estos locales se procedió a la detención de tres personas: dos menores, ambos de 16 años, imputados en un caso, por desórdenes públicos y, en otro, por desórdenes públicos y atentado a agentes de la autoridad. La tercera persona fue imputada por desórdenes públicos.

Un comunicante informó, además, que de un cuarto local se estaban sacando cohetes y material para arrojar a los agentes. Los recursos policiales realizaron una inspección en el interior del bar, en el que se encontraban varios jóvenes. En un rincón del bar, localizaron una mochila que desprendía un fuerte olor a líquido inflamable, una sudadera, varios documentos de identidad a nombre de una misma persona, cuatro trozos de pastillas para encender fuego, y un spray de pintura.

Quiero también referirme a algunas imágenes y algunas denuncias sobre la actuación de la Ertzaintza en el bar Tobogán. Y quiero decirles que la Ertzaintza rompió la persiana de ese establecimiento después de que en el interior se hubieran intentado ocultar ocho personas que habían participado activa y de forma reiterada en los actos vandálicos provocados en la zona.

Al estar bloqueado el acceso, tras realizar varios requerimientos a estas personas para que salieran del bar y en una situación de tensión y urgencia, la Ertzaintza actuó para identificar e imputar a los alborotadores, aunque tengo que reconocer que en este caso la actuación puede ser mejorable.

Quiero insistir en que las imágenes emitidas por los medios de comunicación hablan por sí mismas. Son clarificadoras y reflejan escenas lamentables”.

Agerraldiko testuarekin bidalitako bideo-grabazioek agerian jarri zituzten Ertzaintza iritsi zela jakinarazteko okupatutako eraikinetik egindako oharra, eraikinaren zabaltzatik kontra egin zuen erresistentzia aktiboa, poliziaren operatiboaren aurka objektuak jaurtitzea eta agenteek higiezinera sartzeko izan zituzten hainbat oztopo. Horrez gain, komunikabideek barreiatutako irudiak ere bildu zituen.

10. Informazio horretan adierazi zen erabilitako indarra proportzionatua izan zela baina ez zen adierazi erakunde honek haren balorazioa egiteko behar duen zehaztasunez Herrizaingo Sailak zer judizio-elementu baliatu zituen ondorio hori ateratzeko.





Aipatu informazioak ez zituen barne hartu poliziaren esku-hartzea adierazitako zehaztapenetara egokitu ote zen baloratu ahal izateko beharrezko datuak; gure ustez, aintzat hartu beharrekoa indarkeriaren erabileraren barruko kontrolari zegokionez, zein ikuspuntu materialari eta agenteek neurri horietara jotzen dutenean kontuan hartu behar dituzten exijentziak betetzeari zegokionez.

Horren ondorioz, berriz ere aipatu sailera jo genuen, poliziaren jarduera aztertzeo aukera emango ziguten datu horiek eta gainontzekoak eman ziezakigun, kontuan hartuta *Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzko* urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean adierazi genuen jarrera.

Indarraren erabileraren barneko kontrola nola gauzatu zen egiaztatzeo, eskatu genion, zehazki, adieraz ziezagun agenteek unean bertan jakinarazi ote zioten kontrol-zentroari indarra erabili behar izan zutela eta erabilitako indar hori zertan zetzan zehatz-mehatz dokumentatu ote zuten, baita haien hierarkia-nagusiek erabilitako indarraren egokitasun judizioa egin ote zuten eta berretsi ote zuten. Era berean, eskatu genion jarduera horiek jasota zituzten agiriak helarazteko.

Horrez gain, eskatu genion Ertzaintzak gomazko pilotak jaurtitzerakoan segitu zituen jarraibideen berri eman ziezagun, baita kasu honetan jarraibide horiek nola aplikatu ziren azal ziezagun ere.

Kexek eragin zituzten kontuekin lotura zuenez, egokia iruditu zitzaigun izapide horiek aprobetxatzea sail horrek indarkeriaren erabilera modulatzeko xede duen gomendio orokorrean proposatutako neurriren bat ezarri ote zuen galdetzeko.

Aurreko aurrekarian jasota geratu den moduan, Herrizaingo Sailak hasiera batean eman zigun informazioak poliziaren jardueran nolabaiteko gabeziak onartzen zituela zirudien. Indarkeriaren erabileraren kasuan bezala, informazio hori ez zen nahiko zehatza erakunde honek jarduera hori baloratu zezan, proportzionaltasunaren printzipiora egokitzeari buruzko ikuspuntua aintzat hartuta aztertu zezan eta Herrizaingo Sailaren ustez hobetu zitezkeen alderdien berri edukitzeko eta egoera horrek informazio hori eskatzera behartu gintuen.

Herrizaingo Sailari helarazi genion informazio-eskaera berrian, gogora ekarri genion erakunde honek haren jarrera aipatu gomendio orokorrean eman zuela aditzera, egindako egozte batzuen edukari buruzko kexetan eragindako kontuen inguruan, "kontrasalaketa" izenaz ezagutzen dena, eta delitutzat jotzeko beharrezko larritasunik ez duten legez kontrako kasuengatik atxilotetaren inguruan. Gomendioa oinarri hartuta, esan genion Ertzaintzak aurrera eraman zituen atxiloteten eta egozteen jarraipena egin eta aztertu behar zuela, aipatu agirian adierazi genuen ikuspegitik eremu horretan gehiegikeriak saihesteko (II.2.2. eta II.2.3. atalak).





Horrez gain, eskatu genion ordezkari publikoek, hala eskatzen dutenean, poliziaren operatiboetako lekuko gisa esku hartzeko aukeraren gainean Ertzaintza zuzentzen duten jarduteko irizpideen berri eman ziezagun, kasuan kasuko ordezkartzaren babesean, honen harira mahaigaineratu zizkiguten kontuei erantzun arrazoitua eman ahal izateko beharrezko judizio-elementuak edukitze aldera.

Halaber, ikerketarako barneko prozedura bat ofizioz hasteko premiari buruzko irizpidea gogora ekarri genuen, betiere, agenteren baten behin-behineko jarduera desegokiren baten berri edukiz gero. Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorra aipatu genuenean (II.1.1 atala), adierazi genion poliziaren jarduerak jasotako kexak ikertu behar zituela eta gertatutakoa argitze aldera haren esku zeuden ikerketazko aukera guztiak agortu behar zituela. Horretarako, laguntzeko prest geunden erakunde honetan aurkeztu ziren kexek eragindako jarduera zehatzei buruz genituen datu guztiak emateko, jarduera horiek identifikatu eta argitzen aurrera egiteko aipatu datuak beharrezkotzat jotzen bazituen.

Azkenik, gogora ekarri genion agenteak identifikatzeko aukera ematen duen zenbakia edo erreferentzia poliziaren uniformean agerian jartzeari buruzko gomendio orokor horretan adierazi genuen irizpidea eta gure gomendioa eta ildo beretik 2011ko urriaren 10ean Eusko Legebiltzarrak onartu zuen ez-legezko proposamena betetzeko neurriren bat hartu ote zen adierazteko eskatu genion.

11. Herrizaingo Sailak ez zion erantzunik eman adierazi genuen epean gure eskaerari, ezta helarazi genion errekerimenduari ere. Horregatik, errekerimendu berri bat bidali behar izan genion, azkenean erantzundakoa.

Eskaera horri erantzuna emanez sail horrek emandako informazioaren arabera, okupatutako higiezina hustu eta eraisteko ezarritako poliziaren operatiboa osatzen zuen agente-kopurua hauxe zen: *"el adecuado a la magnitud del evento, para lograr los objetivos del desalojo, preservar la zona de actuación, proteger las labores de derribo y todas las necesidades derivadas de las acciones anteriores con repercusión en el normal devenir del barrio de Rekalde"*. Horrez gain, aipatu du eraikina isolatzeko eta alboko eremuak babesteko ezarritako poliziaren operatiboa(k) *"motivó limitaciones a la circulación vial y peatonal que afectaban a la calle Iturrigorri, calle León de Uruñuela, calle Gordóniz y calle Estrada Caleros en su contacto con el edificio a desalojar. Con esto se pretendían dos objetivos, primero que ninguna persona sufriera daños por la acción de resistencia activa de los 'ocupas' (lanzamiento de objetos desde la azotea) y segundo se posibilitaran las acciones policiales tendentes a acceder al edificio a desalojar"*. Eta gaineratu da Errekalde auzoan zirkulazio-muga horiek baino ez zirela egon eta *"las concretas y específicas derivadas de las concentraciones y manifestaciones y los incidentes de orden público propiciados por los opositores al desalojo"*. lotuta zeudenak.





Agenteak lokal publiko, pribatuetara eta etxebizitzetako atalondoetara sartzeari dagokionez, adierazi da desordenaren delituen ustezko egileen jazarpenari erantzuna emateko egin zela eta halako zenbait egoeraren berri eman zitzaigun.

Erabilitako indarraren inguruko informazio berria bat dator funtsean aurretik eman zitzaigunarekin, puntu honetan hilaren 21ari lotutako datu gehiago aurkeztu badira ere.

Hala, egun horretako goizean jazotako poliziaren hiru kargen berri eman da eta aipatu da karga horietan agenteek *“material antidisturbios”* erabili zutela -ez da zehaztu-, baita haien *“defensas”* eta *“bastones policiales”* ere, hurrenez hurren. Kargak erabiltzeko emandako arrazoia izan da polizia-lerroaren aurrean bildutako pertsonak ez zituztela obeditu lerroa osatzen zuten agenteen esanak, iraindu egin zituztela, protestak egin zituztela galtzadan eserialdiak eginez eta haien aurka objektuak jaurti zituztela. Adierazi da aurretik megafonia bidez, bi aldiz, jakinarazi zitzaizela Goya eta Gordoniz kaleen elkargunean eserialdia osatzen zuten pertsonak galtzada libre utzi behar zutela, zirkulazioa berrezartzeko. Eta adierazi da jarduera horietan agenteak zauritu eta poliziaren ibilgailuak kaltetu zirela.

Hilaren 21eko arratsaldean izan zen manifestazioari dagokionez, esan da agenteek *“utilizar salvos (disparos sin pelota antidisturbios)”* erabili behar izan zutela eta hori justifikatzen da esanez manifestazioa hustutako eraikinerari iritsi zenean hainbat manifestarik higiezinaren inguruan jarritako polizia-lerroa gainditzen saiatu zirela, hain zuzen, berriro ere bertan sartzeko, baita manifestarien kopurua handiagoa zela ere. Hala, zehaztu da salbak izan zirela *“ocasionaron la avalancha desde atrás y no la carga policial”*

Halaber, azaldu da egun horretan, 19:00etan, Errekalde plazan edukiontzia zeharkatu edo gurutzatu zirela eta Diaz Emparanza Doktorearen kalean beste batzuk erretzen saiatu zirela eta, ondorioz, enpresa baten erakusleihoan kalteak eragin zirela. Halaber, gehitu da, une berean, burua estalita zuten pertsonak edukiontzi gehiagori eman zizkela buelta eta erre zituztela Goya eta Altube kaleetan eta, arropaz aldatu ondoren, Kukutzari babesa emateko plazan bildutako pertsonen artean nahastu zirela. Horrez gain, adierazi da horien oso gertaera antzekoak 21:30ean errepikatu zirela.

Honako hau nabarmendu da: *“el uso de la fuerza por parte de los agentes actuantes fue el adecuado, proporcional, oportuno y necesario, atendiendo a las diferentes situaciones ocurridas”*. Eta hauxe argitzen da: *“En todas las actuaciones con detenciones o imputaciones en las que fue necesario el uso de la fuerza, se realizó la preceptiva comparecencia judicial con la descripción de los hechos y de los motivos que conllevó su uso”*.

Hauxe aipatu da: *“La actitud de los ocupantes así como de los participantes en las diversas concentraciones y manifestaciones que se realizaron entre los*



días 21 y 23 no se puede considerar como pacífica” eta berriz adierazten da: “la actuación policial consistió en restablecer el orden público allí donde se perturbó aplicando el principio de proporcionalidad adecuando el uso de la fuerza para lograr el objetivo pretendido”.

Informazio berriak ez du iritzirik ematen indarraren erabileraren barneko kontrolaren inguruan planteatu genituen kontuei, ezta puntu horretan egin genituen gomendioak bete ote ziren egiaztatzeko eskatu genuen agiririk aurkeztu ere. Horrez gain, ez du argibiderik eman erabilitako indarra zehaztasunez azaltzeko eskatu genuen alderdiaren inguruan eta ez die erantzunik eman gomazko pilotak erabiltzearen eta indarraren erabilera modulatzeko neurriak hartzearen inguruan genituen intereseko kontuei. Oro har, ez du aipatu agenteek, manifestazioak eta kontzentrazioak amaitu eta indarra erabili baino lehen, neurri horiek hartuko zituztela zioen oharraren berri eman ote zuten. Ez ditu guk eskatutako zehaztasun mailarekin eta graduarekin azaldu Herrizaingo Sailak zer judizio-elementu baliatu dituen erabilitako indarra proportzionatua zela ondorioztatzeko. Ezta argitu ere, azken batean, pertsona jakin batzuen aurka bideratutako indarraren erabilerari buruzko kexek jorratzen zituzten alderdiak, kontzentrazioak eta manifestazioak alde batera utzita.

Gauzak horrela, bigarren informazio horrek funtsean ez ditu agerian jarri Tobogan tabernan gauzatutako poliziaren jardueraren gaineko datuak eta hasiera batean emandako berak dira eta, horrez gain, ez du azaldu Herrizaingo Sailak modu esplizituan zer alderdi jo zituen une horretan hobetu zitezkeen aldetzat.

Horrez gain, ez du iritzirik azaldu urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean adierazitako prebentziozko ikuspegitik poliziaren jardueraren jarraipenaren inguruan, atestatuen edukia errealitatearekin bat etor dadin, horiek eragiten dituzten gertakariei dagokionez, baita delitutzat jotzeko nahiko larritasuna ez duten legez kontrako ekintzengatik “kontrasalaketak” eta atxiloketak jazo ez daitezkeen.

Bilboko Udaleko zenbait zinegotziri emandako tratuari eta udaleko ordezkariak, hala eskatzen badute, poliziaren operatiboetan lekuko gisa esku hartzeko aukerari dagokionez, hauxe dio: *“La actitud de los concejales allí presentes eran de oposición al desalojo y por lo tanto lo adecuado era que se mantuvieran en el acordonamiento exterior”,* y que *“la única figura dotada de autoridad en el municipio es la del alcalde”.*

Poliziaren jarduerak jaso dituen kexen ikerketari dagokionez, aipatu informazioak bakarrik adierazi du zer unitate den eskuduna Ertzaintzaren barruan ikerketa hori egiteko, ikerketa egin den edo ez azaldu gabe.

Azkenik, gure gomendioa eta agenteak identifikatzen dituen identifikazio-zenbakia edo –erreferentzia poliziaren uniformeek gehitzearen inguruan Eusko Legebiltzarraren ez-legezko proposamena betetzeko hartutako neurriak



dagokienez, ondorengo adierazi da: *"se está a la espera de la finalización de los estudios pertinentes para su puesta en práctica"*.

Kontsiderazioak

1. Ordenamendu juridikoak Arartekoari esleitzen dizkion prebentziozko funtzioen eremuan, erakunde honek hainbat neurri proposatu ditu poliziaren jarduerak oinarrizko eskubideen errespetuarekin bat datozen parametroekin egokitu daitezzen. Proposamen horietako bat da poliziaren arduradunek ofizioz ikerketarako barneko prozedura bat abiarazteko premia, betiere, agenteren batek behin-behinean jarduera desegokiren bat bideratu duela jakinez gero, gertatutakoa aztertze, jarduera hori behar bezalako bideetatik jazo ote zen egiaztatze eta, hala badagokio, neurri egokiak, diziplina neurriak edo beste izaera batekoak hartze.

Berriki, *Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzko* urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean gai hori sakonago jorratu dugu eta bertan horren inguruan dugun iritzia jasota dago (II.1.1 atala).

Gomendioan gure ustez ikerketan aintzat hartu behar diren gutxieneko estandarrak aipatu ditugu, mekanismo horrek eraginkortasunaren gutxieneko berme batzuekin bete dezan gertakariak azaltzeko haren xedea. Zehazki, gailendu dugu ikerketak azkarra eta inpartziala izan behar duela eta haren edukiak egokia eta nahikoa izan behar duela gertatutakoa azaltzeko eta azpimarratu dugu gertaerak argitze aldera beti ahalegin handia egin behar dela eta gertakari horiek argitzeko baliagarriak diren ikerketarako arrazoizko aukera guztiak agortu behar direla.

Gure iritzia pronuntziamendu judizialak eta gomendioan bertan aipatu ditugun giza eskubideen nazioarteko organismoak izan ditu oinarri. Agiri horretan adierazi genuen moduan, uste dugu Konstituzio Auzitegiak eta Giza Eskubideen Europako Auzitegian arlo honetan egin dituzten doktrinatik ondorioztatutako irizpideak, batez ere torturen eta tratu krudelaren eta umiliagarriaren gaineko ikerketa judizialei lotutakoak, poliziaren ikerketaren esparruan ere aplikatu behar direla.

Garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea Giza Eskubideen Europako Auzitegiak estatuei eskaintzen dien egoera¹. Alegia, ikerketa eraginkorra eta auzitegiak berak zehaztu dituen parametroekin bat datorrena abiarazteko estatu horiek duten betebeharra ez konplitzeko baldintza. Kasu batzuetan,

¹ Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Babeserako Europako Hitzarmenaren 2. eta 3. artikulua urratzeagatiko prozeduretan (bizitzarako eskubidea eta torturaren debekua).



auzitegiak egoera horri garrantzi frogagarria ematen dio eta, hala, ulertzen da prozeduraren esparruan alegatutako urratzea jazo dela².

Aurrekarietan jasota geratu den moduan, Herrizaingo Sailak ez digu adierazi gure ustez aintzat hartu beharreko jarraibideekin bat etorritzat ikertu ote diren kexak. Izan ere, puntu honetan esan digu bakarrik zer unitate den eskuduna Ertzaintzaren barruan Ertzaintzako kideen jardueren aurkako kexak ikertzeko.

Kexak eragin dituzten gertakariak argitzeko aipatu sailak aurrera eraman ahal izan duen ikerketaren gaineko informazioirik ezaren ondotik, ulertu dugu ez dela aipatu jarraibidetara egokitu.

Halaber, behartzen gaitu berriz ere administrazio hori eskatzera poliziaren jardueraren zuzenketaren inguruan kexak mahaigaineratu dituzten zalantza guztiak argituko dituen gertakarien ikerketa zehatza egin dezan, urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorreko zuzentarauak jarraituz.

2. Erakunde honek behin baino gehiagotan esan du indarraren erabilera beti azken baliabidetzat jo behar dela, egokitzapen, premia eta proportzionaltasunaren legezko printzipioak hertsiki errespetatu behar dituela eta arrazoizko judizio bat izan behar duela oinarri, kasu bakoitzean hierarkia-nagusiek kontrolatu eta berretsitakoa. Horrez gain, agerian jarri dugu agenteek zergatik jo duten indarraren erabilera eta esku-hartzea zehazki nola bideratu den azaldu behar dutela, erabilitako indarraren azalpen xehatua eginez. Gainera, esan dugu jarduera behar bezala dokumentatu behar dela, neurriaren ondorengo kontrolerako aukera egon dadin. Eta, adierazi dugu, indarraren erabilera poliziaren bulegoetatik kanpo jazotzen denean, agenteek kasuan kasuko kontrolerako zentroari jakinarazi behar dizkiotela jardueraren zergatiak.

Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean ere joratu dugu kontu hori (II.2.1 atala), aipatu zuzentarauak bilduz, *San Frantzisko zonan atzerritarrekiko burututako jarduera polizialak* txostenean (1998ko txostena) dagoeneko jasotakoak, hain zuzen.

Horrez gain, gomendioan indarraren erabilera aztertu dugu ikuspegi material batetik (IV. atala) eta hauxe adierazi dugu:

*“Gizarte demokratiko batean, hiri-esparrua zirkulazio eremu bat izateaz gain, parte hartzeko eremu bat ere bada. Konstituzioaren 21. artikuluan elkartzeko eskubidea aitortu da *“es una manifestación colectiva de la libertad de expresión ejercitada a través de una asociación transitoria (y) opera a modo de técnica instrumental puesta**

² 2011ko martxoaren 8ko epaiak agerian jartzen du berriki irizpide hori aplikatu dela (3. atala, TEDH\2011\29) eta bertan hauxe aipatzen da: *“En conclusión, teniendo en cuenta la ausencia de una investigación profunda y efectiva acerca de las alegaciones defendibles del demandante según las cuales había sufrido malos tratos durante su detención, el Tribunal estima que ha habido violación del artículo 3 del Convenio en su parte procesal”* (apartado 34).



al servicio del intercambio o exposición de ideas, la defensa de intereses o la publicidad de problemas o reivindicaciones, constituyendo, por lo tanto, un cauce del principio democrático participativo, cuyos elementos configuradores son, según la opinión dominante, el subjetivo —una agrupación de personas—, el temporal —su duración transitoria—, el finalístico —licitud de la finalidad— y el real u objetivo — lugar de celebración—”.

Beraz, elkartzeko eskubidea eta adierazpen-askatasuna hertsiki lotuta daude. Herritarren parte-hartzearen inguruan poliziari egiten duen kudeaketak ez du oinarritzko eskubide horien gauzatzea oztopatu behar guztiz derrigorrezkoa dena gaindituz. Ondorioz, gizarte mobilizazioen kasuan, poliziaren erantzuna manifestarien jarrerara egokitu behar da, hirugarrenentzako arriskua barne hartzen duten jarrera bortitzak eta indarkeria aktiboaren aurkako printzipioak erakusten dituzten portaerak nahitaez bereiziz. Zentzu horretan, aginpideek kolokan dauden interesak haztatu behar dituzte, prebentzioaren garrantzia azpimarratuz eta manifestariekin bitartekotza erraztuz ‘ordena koproduzitzeko’.

Halaber, honakoa aipatu dugu:

“Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko maiatzaren 13ko 2/1986 Lege Organikoak ezartzen du poliziari funtzionarioek modu honetan jardun behar dutela euren eginkizunak gauzatzekoan: *“beharrezko erabakitasunez eta berandutu gabe, horren arabera denean kalte larri, berehalako eta konponezin bat saihestea; jarduterakoan, gainera, kongruentzia, egokiera eta proportzionaltasun irizpideek gidatuko dituzte beren eskura dauden baliabideak erabiltzerakoan”* [5.2.c) art.].

Gainera, kontuan hartu behar da otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organiko horrek poliziaren indarrak behartzen dituela eragindakoak jakinaren gainean edukitzen manifestazioak eta bilerak amaitu baino lehen, herritarren segurtasunaren asaldadurak armekin edo indarkeriazko ekintzen beste baliabide batzuekin (17. art.) gertatzen direnean izan ezik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak printzipio hori berretsi egiten du, kideek, beren eginkizunak gauzatzekoan, honela jardun behar dutela xedatzen baitu: *“beharrezko erabakitasunez, indarraz arrazoizkoa dena baino harago baliatu gabe; gainera, egokitzapen, premia eta proportzionaltasun irizpideek gidatuko dituzte beren eskura dauden baliabideak erabiltzerakoan”* (34.1. art.).

Konstituzioko jurisprudentziaren arabera, proportzionaltasunaren printzipioa errespetatzeko, oro har, hartzen den neurriak honako baldintza hauek bete behar ditu: a) lortu nahi den helbururako egokia izatea (egokitasun printzipioa); b) beharrezkoa izatea, hau da, egokitasunari dagokionez berdina den eta xede bera lortzeko horren garestia ez den beste neurririk ez egotea (beharraren printzipioa); eta c) neurri horrekin interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago sortzea estualdian dauden ondasun edo baloreen gainean eragozpenak baino (proportzionaltasunaren printzipioa zentzu hertsian).

Proportzionaltasun printzipioa indarra erabiltzeari aplikatzeko, erabaki hori egokia izan behar da lortu nahi den helburua erdiesteko. Modu berean, horrek esan nahiko du,



helburu hori erdieste aldera, ez dagoela horren garestia ez den eta egokia den beste neurririk eta neurri horrek ez duela saihesten dituenak baino kalte larriagorik eragiten.

Halaber, lortu nahi den xederako ahalik eta indar gutxien erabili behar da. Horrek esan nahi du, erabilitako bitartekoa kaltegarria ez dena izan behar dela eta kaltegarria ez den moduan erabili behar dela.

Hori dela eta, kasu bakoitzean bat egiten duten inguruabar zehatz guztiak zehaztasunez ezagutzea funtsezkoa da indarra barne hartu behar izan duen poliziaren jardura bakoitza baloratu ahal izateko. Horregatik, indarra erabiltzea kontrolatzeko mekanismo zehatzak aztertzerakoan agerian jarri duguna errepikatu dugu, hau da, neurriaren legezkotasunari buruzko epaiketa egiteko beharrezkoak diren elementu guztiak behar bezala dokumentatu behar direla.

Era berean, azpimarratu behar dugu indarra erabiltzea, istiluak konpontzeko neurri gisa, ahal den guztietan saihesten duten konponbide berriak aztertzea egokia dela. Ikuspuntu horretatik, uste dugu erabilgarria izango litzatekeela polizia-agenteei bitartekotza tekniken eta gatazkak konpontzeko modu alternatiboen arloan prestakuntza jasoko balute, bai eta lan horretan espezializatu diren lan taldeak ezartzea ere. Hori guztia bitartekotza mekanismoak jarri eta sustatzeko moduan egon daitezkeen, esku-hartze batean gerta daitezkeen tentsio-egoerak desagerrarazteko asmoz.

Herritarren Segurtasuna Babesteko otsailaren 21eko 171992 Lege Organikoak segurtasun indar eta kidegoei baimena ematen die igarotze publikoko tokietan gauzatzen diren bilerak eta manifestazioak *“kalterik txikiena eragiteko moduan”* desegiteko, betiere, pertsona eta ondasunen gaineko arriskuarekin ordena publikoan arazoak sortzen dituztenean (16.2. artikulua, biltzeko eskubidea arautzen duen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoaren 5. artikularekin lotutakoa); horrez gain, Konstituzioak ezarritako biltzeko eta manifestatzeko eskubideen gauzatzearen aldeko interpretazioa egin beharko litzateke.

- 3.- Aurrekarietan azaldu dugun moduan, Herrizaingo Sailak indarraren erabilera justifikatzen du okupatutako eraikinean Ertzaintzaren aurka aurrera eraman zen indarkeriazko ekintza antolatua kontuan hartuta, baita higiezina hustu eta eraisteagatik bideratutako protestetan jazotako indarkeriazko ekintzak eta protesta-ekintzetan parte hartu zuten pertsona batzuen indarkeriazko jokabidea ere.

Ararteko erakundeak indarkeriaren erabilera ez du onartzen egoera gatazkatsuak konpontzeko edota edozein proiektu, legezkoa bada ere, defendatzeko metodo gisa, gizarte bizikidetasunaren oinarrian dauden printzipioak eta balioak ahultzen baititu. Horregatik, okupatutako higiezina hustu eta ondoren eraisterakoan poliziaren esku-hartzeari erantzuna emanaz jazotako indarkeriazko ekintzak kondenatu behar ditugu. Argitara eman ziren datuen arabera, kalte material handiak eragin zituzten eta pertsonen eta ondasunen osotasun fisikoa arriskuan jarri zituzten gertakari horiek, gure iritziz, onartezinak dira eta guztiz gaitzetsi behar ditugu.





Zalantzarik gabe Ertzaintzaren jardueraren aurrean indarkeriazko ekintzak eta erresistentzia aktiboaren ekintzak poliziaren erantzuna aztertzerakoan nahitaez aintzat hartu beharreko elementuak dira eta kontuan hartu beharreko exijentziekin bat etortzeko ikuspegitik aztertu, lehen aipatu dugun moduan. Hala ere, argi dago ekintza horiek ezin dituztela justifikatu inolaz ere poliziaren operatiboan parte hartu zuten Ertzaintzako agenteen gehiegikeriak, ezta polizia-kidego horren kideen lanbide-zereginak zuzendu behar dituzten printzipioen aurkako jarduerak ere.

Horrez gain, aurrekarietan agerian jarri dugu Herrizaingo Sailak indarraren erabileraren inguruan eman digun informazioa ez dela nahikoa erakunde honek baloratzeko poliziaren esku-hartzean agenteek erabili zuten indarrak dagoeneko adierazi ditugun errekerimenduak errespetatu ote zituen. Gogora ekarri behar da informazioa horrek ez dituela bakarrik aipatu eremu horretan gehiegikeria bat salatzen zuten kexek hizpide zituzten jarduerak eta, horiei dagokienez, ez dagoela balorazio hori egiteko eskatu genuen zehaztasunik. Halaber, modu esplizituan interesekotzat jotzen genituen alderdi batzuk ez ditu jorratu, adibidez, poliziaren operatiboa osatzen zuten agenteek gomazko pilotak erabiltzeari lotutakoak, une horretan lanari lotutako irizpideak, manifestazioak eta kontzentrazioak amaitu baino lehen jakinaren gainean jartzeko konplimendua eta indarraren erabileraren barneko kontrola. Horrez gain, ez ditu barne hartu kasu horretan aipatu kontrola nola gauzatu zen egiaztatzeko eskatu genituen agiriak eta egin ditugun zuzentarauekin bat etorri ote zen (ez du alderdi horren inguruko azalpenik jaso). Azken batean, ez ditu bildu eskatu genuen zehaztasun mailarekin sail horrek ondorioztatutako erabakia funtsatzeko judizio-elementuak (erabakia: agenteek erabilitako indarra, kasu guztietan baliatutakoa, proportzionatua izan zen).

Adierazitako gabezia horien ondotik, erakunde honek ez ditu judizio-elementu guztiak Ertzaintzak haren esku-hartzean erabilitako indarra behar bezala arrazoitzen duen balorazio egiteko, hain zuzen, errespetatu behar zituen exijentziekin eta bermeeekin bat etortzeko ikuspegitik, eta, egoera horren ondorioz, gainera, ezin du Herrizaingo Sailak puntu honetan poliziaren jardueraren proportzionaltasunaren inguruan eman digun iritzi bera izan.

Edozelan ere, uste dugu sail horri dagokiola ondorio hori ateratzeko oinarri izan dituen datu zehatzak helaraztea, baita poliziaren jardueraren alderdi horren zuzenketaren gainean kexek agerian jarritako zalantzak argitzea ere, eta azpimarratu nahi dugu oraindik hori ez dela egin.

Herrizaingo Sailak eman digun informazio eskasiaren zioz, ulertu dugu sail hori ez dela egokitu indarraren erabilerari eta barneko kontrolari buruzko urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean adierazi genituen zehaztapenetera.

Halaber, sail horri eskatu behar diogu agenteek erabili zuten indarraren azterketa zehatza egin dezaten, zehaztapen horiek eta kexek mahaigaineratutako kontuak aintzat hartuta. Gure ustez, egingo den azterketan bereziki hartu beharko litzateke aintzat esku-hartzeek, manifestazio



baketsu eta baimenduetan jazotako indarkeriazko gertaera isolatuak, ezin dutela eragin saihestu nahi duten kaltea baino kalte handiagoa.

Deigarria da lesioen parte medikoen kopuru handia, baita Arartekoak dituen kolpeen eta kontusioen froga grafikoak ere. Horregatik, Herrizaingo Sailari eskatu behar zitzaion poliziaren jardueren indarraren erabileraren inguruan barneko ikerketa egin zezan eta Arartekoari aipatu jardueren gaineko informazio eta agiri zehatzagoak helaraz ziezazkion.

4. Herrizaingo Sailak ez du behar bezala justifikatu indarraren erabilera babestu behar duten elementuak jazo zirela, urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean jasotako zehaztapenei jarraiki.

Horregatik, egokia iruditu zaigu Giza Eskubideen Europako Auzitegiak mantentzen duen irizpidea epaitzen ari diren gertakarien inguruan estatuak bidezko azalpen sinesgarriak emateko betebeharra ez konplitzeari dagokionez. Estatuak azalpen sinesgarriak ematen ez duenez, auzitegiak sinesgarritasuna ematen dio zenbait kasutan babesa eskatzen duen alderdiak alegatutakoari. Aipatu irizpidea zuzenean kasu honetan aplikatu ezin badaiteke ere, uste dugu gure azterketan nahitaezko erreferentzia dela eta gure jardueraren gidatza hartu behar dela.

Indarraren erabilera neurrigabearen gaineko kexa askok, baita helarazi dizkiguten lesioen parteei eta froga grafikoek ere, irailaren 21 dute hizpide.

Eraikina husteari lotutako irudien eta Herrizaingo Sailak emandako informazioaren arabera, egun horretako goizeko lehen orduetan Ertzaintzak, aurrekarietan adierazi dugunez, indarkeriazko jarrerari aurre egin behar izan ziren. Horregatik, ondoriozta daiteke jokabide horiei eta egun horretan eta hurrengoetan jazotako indarkeriazko gainontzeko jarrerari erantzuna emateko indarrera jo izana justifikatuta zegoela. Dena den, zehazteke egongo litzateke erabilitako indarrak premiaren, egokitzapenaren, arrazoizkotasunaren eta proportzionaltasunaren legeko printzipioak errespetatu ote zituen.

Esku artean dugun informazioa aintzat hartuta, hala ere, ez dirudi hilaren 21aren ostean jazotako indarkeriazko jokabideen egileak Ertzaintzak baliatutako indarraren erabileraren ondorioak zuzenean pairatu zituztenak izan zirenik. Bidali dizkiguten bideo batzuetan antzeman daiteke indarkeriarik baliatzen ari ez ziren eta eskuak goian zituzten manifestarien aurka indarra erabili zela; era berean, indarra erabili zela ere jarrera baketsuan egonik poliziaren kargak harrapatu zituzten eta bertatik atera nahian zebiltzan baina kargak berak eragotzita lortu ezin zuten beste batzuen aurka ere, zeintzuk borraz jo zituzten, horretarako arrazoirik izan gabe. Jarduera batzuen eta besteen artean elementu bereizgarri garrantzitsu horiek kontuan hartuta, baita erabilitako indarrari buruzko informaziorik eza eta dagoeneko azaldu dugun Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren irizpidea ere, uste dugu indarkeriarik baliatu ez zuten herritarren aurka poliziak erabilitako indarrari buruz erakunde honetan kexak aurkeztu zituzten pertsonen salaketak arrazoitu eta justifikatu





direla ulertu behar dela eta, ondorioz, uste behar da ordena publikoa mantentzeaz arduratu ziren poliziaren unitateek baliatutako indarraren erabilera kasu horietan ez zegoela behar bezala justifikatuta premia, egokitzapen, arazoizkotasun eta proportzionaltasun printzipio horietan.

Presuntzio hori, noski, Herrizaingo Sailak suntsitu lezake indarraren erabilera babestu behar duten aipatu printzipioak jazo zirela behar bezala justifikatzen duten agiri zehatzak eta informazioa aurkeztuko balitu.

Irailaren 22ko eta 23ko poliziaren jarduerak hizpide dituzten herritarren kexei dagokienez, kontuan hartuta gertakariekin argi eta garbi lotu ezin daitekeen material grafikoa ez dugula, iruditzen zaigu ez dugula judizio-elementu nahikorik aurrekoa bezalako presuntzio bat funtsatzeko.

- 5.- Horrez gain, aurrekarietan xedatu dugunez, Herrizaingo Sailak ez digu adierazi indarraren erabilera modulatzeari xede duen neurriren bat hartu ote den, hain zuzen, gomendio orokorrean ezarri dugunari jarraiki eta, ondorioz, uste dugu ez dituela ezarri aipatu neurriak eta, gauzak horrela, gogora ekarri diogu berriz ere horren harira agiri horretan jasotakoa.
- 6.- Kexek neurrigabetzat jotzen zituzten poliziaren jardueraren gainontzeko alderdien inguruan (baliabide kopurua, joan-etorri aserako murrizketak eta establezimenduetan sartzea) Herrizaingo Sailak emandako informazioak ez du barne hartu alderdi horiek proportzionaltasun printzipioarekin bat etorri diren edo ez baloratzeko behar den zehaztasun gradua, kontuan hartuta jurisprudenzia konstituzionalak printzipio horren gainean egiten duen interpretazioa (aurretik horri buruz mintzatu gara).

Hortaz, informaziorik eza oso nabaria da agenteak Tobogan tabernara sartzearen inguruan. Dagoeneko aipatu denez, sailak, hala ere, hasiera batean zehaztu ez dituen hainbat gabezia onartu zituen, espresuki egin dezan eskatu badiogu ere.

Poliziaren egitekoa haren izaeratik tirabirazko testuinguruetan jazo ohi da pertsonen oinarrizko eskubideei lotuta baitago eta batzuetan egoera deserosoak eragin ditzake. Dena den, eskubideen murrizketek eta agenteen jardueraren ziozko eragozpenek legezko estaldura egokia eduki behar dute, behar bezala justifikatuta egon behar dute eta adierazi dugun proportzionaltasun printzipioarekin bat etorri behar dute.

Ordenamendu juridikoak polizia-kidegoak behar dituzten organo judizialek eskatzen dieten lankidetzaren ematera, ebazpenak betearaz daitezten. Horrez gain, herritarren segurtasuna mantendu eta berrezartzeko egitekoa ematen die, horretarako, eskubideen neurri mugatzaile eta hertsatzaile jakinak hartzeko baimena emanez -adibidez, bide publikoetan egotea eta igarotzea mugatzea-, baita indarraren erabilera aztertzerakoan aurretik aipatu ditugun zereginak eman ere [Konstituzioaren 118. artikulua, Botere Judizialari buruzko uztailaren



1eko 6/1985 Lege Organikoaren 17. artikulua, Indarrari eta Segurtasun Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 5.1.e) eta 11.1. e) eta b) artikulua eta Herritarren Segurtasunaren Babeserako otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 14. artikulua eta hurrengoak].

Herrizaingo Sailak eman dizkigun azalpenak kontuan hartuta, uste dugu gure esku-hartzea bideratzea eragin duen Ertzaintzaren jarduera betebeharraren eta adierazitako funtzioen konplimenduaren esparruan kokatzen dela eta, beraz, orokorrean lege babesa edukiko lukeela.

Gure ikuspuntuaren arabera, aipatutako azalpenek aurre egin behar zioten egoerarekin bat zetorren poliziaren operatibo bat diseinatu izana justifikatuko lukete. Modu horretan, lortu nahi zen helburua erdietsiko litzateke eta zenbait eremutara sartzea mugatuko litzateke baina, azpimarratu nahi dugu berriro ere ez direla nahikoa operatibo zehatza, ezarri ziren mugaketa multzoa eta establezimendu jakin batzuetan sartzeari dagokionez kexek mahaigaineratu dituzten kontuak proportzionaltasunaren printzipiora egokitu ote ziren baloratu ahal izateko.

Poliziaren jardueraren alderdi hori baloratzeko ez zaigu informazio nahikoa helarazi, beraz, ulertzen dugu Herrizaingo Sailak ez dituela kexek horren inguruan aditzera eman zituzten zalantza guztiak argitu. Hori dela eta, eskatu nahi diogu kontu horiek adierazitako ikuspuntutik aztertu ditzan.

Edonola ere, legebiltzarrean egindako agerraldian, Herrizaingo Saileko sailburuak Tobogan tabernan poliziak burutu zuen jarduera hobea izan zitekeela onartu izanak pentsarazten digu jarduera hori proportzionaltasunaren printzipioaren aurkakoa izan zela, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrinari jarraiki.

- 7.- Ararteko erakundeak aditzera eman du zenbait kexek salatu zituzten jarduerak gertatzeko arriskua dagoela, hau da, polizia-agenteez zenbait pertsonen aurka egindako egoztek handitzea. Horri "kontrasalaketa" deitu diogu. Halaber, delituak izateko larritasun nahikorik ez duten legez kontrako jarduerengatik atxilotzeko arriskua dago. Horregatik eta hala geratuz gero, jarduera horiek saihesteko eta antzemateko mekanismoak ezartzeko gomendioa egin dugu. Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean, zehatz-mehatz, proposatu genuen poliziaren jardueren gaineko datuak biltzeko eta ebaluatzeko sistemak antolatzea, hala nola, polizia-agenteez egindako egozteen inguruan auzibidean egon diren kalifikazioen eta erabakien jarraipena egitea (II.2.2. eta II.2.3. atalak).

Aurrekarietan azaldu den bezala, Herrizaingo Sailak ez digu honen gaineko informaziorik eman: Ertzaintzak aipatutako ikuspuntutik egin zituen atxiloketak eta egoztek aztertu ote diren.



Informaziorik eza dela-eta, ondorioztatu dugu azterketa hori ez dela egin, beraz, aztertu ditzazun eskatu behar dizut berriro ere.

- 8.- Erakunde honek jakin badaki udaleko administrazioaren ordezkariak alkatetzaren esku dagoela, Herrizaingo Sailak adierazi duen moduan, eta korporazioko gainontzeko kideen esleipenak legez ezarritakoak direla. Azken horien artean ez dago poliziaren jardueren lekuko gisa, estatus bereziarekin parte hartzea. Hala ere, ulertzen dugu aurkeztutako kexak zentzu horretan aditzera eman zuen interesa. Horregatik egokia iruditzen zaigu aipatutako sailak, ezartzen dituen baldintzekin, helarazi dizkiguten nahiak bideratzeko aukera aztertu dezala. Nahiek zera dute hizpide: ordezkari publikoek poliziaren operatibo jakin batzuen behatzaile gisa esku hartzeko aukera edukitzea.

Edonola ere, bertaratu ziren zinegotziei emandako tratua jarduera desegoki eta oker gisa kalifikatu beharra dugu, bereziki, bideo-grabazio batek egiaztatu duenaren arabera, zinegotzi batek jaso zituen bultzadak.

- 9.- Herrizaingo Sailak poliziaren uniformean polizia-agentek identifikatzeko zenbaki edo erreferentzia bat erakusteari dagokionez eman digun informazioa dela-eta, errepikatu behar dugu urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean (V. atala) gai horri buruz adierazi genuena eta berriz eskatu behar dizugu neurri horren ezarpen prozesua arindu dezazun.

- 10.- Azaldutako guztia aintzat hartuta eta Herrizaingo Sailak helarazi dizkiguten gertakarien inguruan duen jarrera ikusita, gaiari dagokionez esku hartzeko ditugun aukerak agortu ditugula ulertzen dugu.

Horregatik, ebazpen honekin amaitutzat ematen dugu auzi honetan izan dugun esku-hartzea. Nolanahi ere, irekita utziko dugu sail horrek gaiaren inguruan duen iritzia helaraz diezagun, gabeziak dituzten alderdien gaineko informazioa bidal diezagun edo haren babesean burutzen dituen jarduketan gainean informatzeko.

Ondorioak

1. Gure jarduera eragin duen Ertzaintzaren esku-hartzea ordenamendu juridikoak esleitu dizkion betebeharren eta funtzioen testuinguruan kokatu behar da, beraz, oro har legearen babes osoa dauka. Hala eta guztiz ere, kexetan salatu den jarduera horren alderdi zehatzak argitu gabe daude oraindik.
2. Herrizaingo Sailak ez digu informaziorik eman eta ez dakigu, kexak eragin dituzten gertakariak argitze aldera, kexen gaineko barruko ikerketa egin ote den. Puntu horretan ez dago inolako informaziorik, beraz, ondorioztatu dugu, kasu horretan, ez direla bete Ararteko erakundeak gaiari buruz egin dituen oharak -gaur egun, urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean jasota daude,



“Berme sistema poliziaren jardueretan eta praktketan” gaiari buruzkoa (II.1.1. atala)-. Modu berean, horren ondorioz sailari berriro eskatu behar diogu gertakarien gaineko ikerketa sakona egin dezala, gomendioan jasotako jarraibideak aintzat hartuta eta kexetan poliziaren jardueraren zuzentasunaren inguruan agerian jarri diren zalantza guztiak argituz.

3. Herrizaingo Sailak helarazi digun informazioa ez da inolaz ere nahikoa erakunde honek poliziak erabili zuen indarkeriak egokitasun, premia, zentzuzkotasun eta proportzionaltasunaren printzipioak errespetatu zituen baloratu dezala. Era berean, gure ikuspuntuaren arabera, informazio hori ez da nahikoa sailak helarazi digun iritzia, hau da, printzipioak errespetatu zituela, justifikatzeko. Polizia-agentetek erabili zuten indarkeriaren inguruan Herrizaingo Sailak bidali digun informazioaren gabeziak eta, erakunde honek aditzera eman dituen jarraibideekin bat eginez, indarkeriaren barruko kontrola egin ote den egiaztatzen duen informaziorik ezak, honako hau pentsatzera bultzatzen gaitu: sailak ez dituela jarraibide horiek kontuan hartu, gaur egun urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean jaso direnak hain zuzen ere, eta gomendioan jaso diren gainontzeko oharrek ere alde batera utzi dituela (II.2.1. eta IV. atalak). Modu berean, hori guztia dela-eta, sail horri poliziaren jardueraren azterketa sakona egin dezan eskatu behar diogu berriro ere, gomendioan aipatutakoa eta kexetan azaldutako kontuak aintzat hartuta.
4. Herrizaingo Sailak ez du behar bezala justifikatu indarraren erabilera babestu behar duten elementuak jazo zirela, urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean jasotako zehaztapenei jarraiki. Esku artean ditugun datuekin bat eginez, esan daiteke jokamolde bortitzei erantzuteko Ertzaintzak egin zuen indarkeriaren erabilera justifikatuta egon zela. Dena den, zehazteke egongo litzateke erabilitako indarrak premiaren, egokitzapenaren, arrazoizkotasunaren eta proportzionaltasunaren legezko printzipioak errespetatu ote zituen.
5. Poliziaren zenbait kargen inguruan helarazi diguten material bideografikoa aintzat hartuta, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak estatuek egokiak eta sinesgarriak diren azalpenak ematen ez dituztenean aplikatzen duen irizpideari jarraiki eta Herrizaingo Sailak indarkeriaren erabilera babestu behar duten elementuak behar bezala justifikatu ez dituela kontuan hartuta, esan dezakegu hainbat pertsonen, irailaren 21ean indarkeriarik erabili ez zuten pertsonen aurkako indarkerian oinarritutako poliziaren jardueren ondorioz, erakunde honetan aurkeztu dituzten kexen bidez egin dituzten salaketak arrazoituak eta justifikatuak daudela. Horregatik guztiagatik, ondorengo presuntzioa agerian jarri da: ordena publikoa mantentzeko ardura duten unitate polizialek erabili zuten indarkeria, kasu horietan, ez zen behar bezala justifikatuta egon, aipatutako premia, egokitasun, arrazoizkotasun eta proportzionaltasun printzipioen bidez.
6. Deigarria da lesioen parte medikoen kopuru handia, baita Ararteko erakundeak dituen kolpeen eta kontusioen froga grafikoak ere. Horregatik, Herrizaingo Sailari eskatu zitzaion poliziaren jardueretan indarraren erabileraren inguruan



barneko ikerketa egin zezan eta Arartekoari aipatu jardueren gaineko informazio eta agiri zehatzagoak helaraz ziezazkion.

7. Herrizaingo Sailak ez digu esan, urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean (IV. atala) aipatutako terminoetan, indarkeriaren erabilera modulatzera zuzendutako neurriren bat hartu ote duen. Hortaz, ondorioztatu dugu ez duela neurririk ezarri eta, horrenbestez, errepikatu behar diogu gomendioan gaiaren inguruan adierazi genuen guztia.
8. Kexek barne hartzen duten eta neurritz kanpokotzat jo dituzten poliziaren jardueraren gainontzeko alderdiei dagokienez (baliabide kopurua, joan-etorri askerako murrizketak eta establezimenduetan sartzea), Herrizaingo Sailak emandako informazioak ez du barne hartu alderdi horiek proportzionaltasun printzipioarekin bat etorri diren edo ez baloratzeko behar den zehaztasun gradua. Hori dela eta, ulertu behar dugu kexek une horretan poliziaren jardueraren zuzentasunaren inguruan proiektatu zituzten zalantzak ez direla argitu, beraz, mahaigaineratutako kontuak adierazitako ikuspuntutik azter ditzazun eskatu behar dizut. Edonola ere, legebiltzarrean egindako agerraldian, Herrizaingo Saileko sailburuak Tobogan tabernan poliziak burutu zuen jarduera hobeia izan zitekeela onartu izanak pentsarazten digu jarduera hori proportzionaltasunaren printzipioaren aurkakoa izan zela, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrinari jarraiki.
9. Herrizaingo Sailak ez digu esan Ertzaintzak burutu zituen atxiloketak eta egozteak urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean jasotako ikuspuntua kontuan hartuta aztertu ote dituen, hasiera batean, auzibidean, hutsegite gisa kalifikatu ziren ez-zilegitasun penalengatik egindako atxiloketak eta "kontrasalaketak" saihesteko, bai eta eragin dituzten gertaerei dagokienez atestatuen edukia kontrolatzeko ere (II.2.2. eta II.2.3. atalak). Informaziorik eza dela-eta, ondorioztatu dugu azterketa hori ez dela egin, beraz, aztertu ditzazun eskatu behar dizut berriro ere.
10. Erakunde honek jakin badaki udaleko administrazioaren ordezkartza alkatetzaren esku dagoela eta korporazioko gainontzeko kideen esleipenak lege ezarritakoak direla. Azken horien artean ez dago poliziaren jardueren lekuko gisa, estatus bereziarekin parte hartzea. Hala ere, egokia iruditzen zaigu Herrizaingo Sailak, ezartzen dituen baldintzekin, helarazi dizkiguten nahiak bideratzeko aukera aztertu dezala. Nahiek zera dute hizpide: ordezkari publikoek poliziaren operatibo jakin batzuen behatzaile gisa esku hartzeko aukera edukitzea.
11. Edonola ere, bertaratu ziren zinegotziei emandako tratua jarduera desegoki eta oker gisa kalifikatu beharra dugu, bereziki, bideo-grabazio batek egiaztatu duenaren arabera, zinegotzi batek jaso zituen bultzadak.





12. Herrizaingo Sailak poliziaren uniformean polizia-agentek identifikatzeko zenbaki edo erreferentzia bat erakusteari dagokionez eman digun informazioa dela-eta, errepikatu behar dugu urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean (V. atala) gai horri buruz adierazi genuena eta berriz eskatu behar dizugu neurri horren ezarpen prozesua arindu dezazun.

